

zenbateraino zen larria egoera. Anek ez zuen Martin tartean sartu nahi eta egoera horri buelta emateko nahikoa ausardia zuela uste zuen.

Baina etorri ziren egun ilunagoak, eta Ane urduritzen hasi zen. Alde batetik lanik ez zuelako eta, bestetik, bere senarrak ez zekielako, deus ere ez zekien, zenbaterainoko zorrak zituzten. Bera pozik bizi zen etxeko eginkizunekin.

Hilabete batzuk igaro ziren eta hipoteka ordaintzeko dirurik jada ez zegoen kontu korrontean. Aurrerantzean zer gertatuko zen ez zekien Anek baina oso, oso beldur zen. Hori bai, hainbeste urtez elkar ezagutzen zuen bidaia-lagunari oraindik ere egoeraren berri eman gabe jarraitzen zuen. Eta egunero joaten zen etxetik ordu berean, lanera joateko orduan, Martinek susmatu ez zezan.

Ane gizañoa. Depresioan sartu zen eta putzutik nola atera ez zekien. Gurasoei ere ez zien bere egoeraren berri eman eta irtenbiderik onena desagertzea zela hasi zen pentsatzen. Baita sinetsi ere.

Egun batzuk pasatu ziren eta hurrengo kuota nola ordainduko zuen ez zekiela bizitzako erabakirik latzena hartu zuen.

Afaltzeko ordurako iritsi zen eta, azkenaldian bezala, eguneko anekdotarik onenak kontatu zizkion Martin senarrari. Dena gezurra zen, jakina.

- Legatza ezin goxoago dago, laztana. Esan zion Martini.
- Eskerrik asko. Erantzun zuen ezin harroago senarrak.
- Buruko mina daukat, afal ondoren oheratuko naiz, bihar egun gogorra dut eta.

Aneren ahotza itzalita bezala zegoen, ez zuen indarrik. Berak bazekien bihar oso egun gogorra izango zela, baina ez berarentzat, bizirik geldituko zirenentzat baizik.

Ohiko errutinari so, hortzak garbitu zituen, zimurren aurkako krema bota zuen eta, oheratu aurretik, lo egiteko pilula bat ez, bote osoa hartu zuen. Ispiluko bere irudiari begiratu zion azkenekoz eta, oheratu aurretik, Martin agurtu zuen.

- Maite zaitut. - Esan zion bekokian musua eman ondoren.
- Nik ere bai, maitea.